

A B E R R I E G U N A 2 0 1 6


EAJren AGIRIA

EUSKADI, BULTZADA BERRIA



eaj-pnv.eus





Euzko abertzaleok, urtero bezala, aurten ere ospatuko dugu gure Aberri Eguna, Euskal Aberriaren egun handia. Gure abiapuntua da guk nazio nortasuna aitortu gabe dugula eta beste batzuek, ordea, beren subjektu politikoa zilegi egiten dien egituraketa eta arlo instituzionalean, legez eta nazioarte mailan beren nortasuna, iritzia emateko eta jarduteko gaitasuna babestuta dutenek bai duten euskarri juridiko eta politikorik ez dugula. Labur esanda, hori da, alde batetik, izan nahi dutenen baina izaten uzten ez diotenen eta, beste alde batetik, aurrekoiei eskubide –eta betebeharrak– berdintasuna aitortzeko borondatea eta zilegitasuna ukatzen dietenen artean dagoen ezberdintasun handia.

Euskal abertzalea izateak esan nahi du gure aberria eta gure nortasun hori garatzeko bidea emango digun estatus politikoa aldarrikatzea. Baina hori ez da soilik aitortza bat aldarrikatzea, zalantzarik gabe errealitate bihurtuko duguna; gure herriarekiko eta herrikideekiko konpromisoa ere esan nahi du, solidariotasun eta justizia sozialean oinarritutako gizartean aurrera egitera eramango gaituena, arazoei aurre egiteko modu propioaren balioa azpimarratuz eta gure kultura eta nortasuna mundu globalizatuan dauden balore gisa eskainiz.


Azkenaldi honetan ikusten ari gara orain arte beren buruari ezker “abertzale” izena eman dioten sektore publiko zehatz batzuek gaur egun formulazio berria sortzen ari direla kontzeptu horren ordez ezker “independentista” hartuz. Beren uestez “euskal Estatua lortzea ez da helburu absolutua” baizik eta “estrategia sozialista egituratzeko

tresna”, eta euskal nortasun nazionalaren definizioaren izaera identitarioa alde batera utzi dute egitasmo politiko abertzaleak berezko izan duen tradizio humanista alboratuz.

Ez da lehen aldia sektore batzuek tradizioa bertan behera utzi dutela, beren burua besteengandik bereizteko. Horrela, sektore batzuen aldetik “Euskadi” kontzeptua erabiltzeari utzi zaio Pirinio mendietako euskal herritarrentzako egitasmo komunaz aritzeko eta, horren ordez, “Euskal Herria” izena hartu da. “Euskal Herria” bestelako kontzeptua da eta erkidego naturala da, herrialde zehatz batzuetan zehazten dena. “Euskadi da” esparru geografiko kultural horren eta Nazio gisa aitortua izateko borondatearen konbinaketa eta egituraketa juridiko-politiko propioa eta berezia bilatzen du, hau da, burujabetza osoa, Aturririk Ebroraino. Horixe da Euskadi. Euskal emakume eta gizonen aberria.

EAJ-PNVk ordezkatzen duen euskal abertzaletasunak ez du inolako konplexurik bere burua definitzeko orduan. Ez du konplexurik bizi garen testuinguru globalean ezta une honetako egoera politikoan ere, zeinetan eredu politiko “berriarekin” identifikatzeko borondatea ezinbesteko baldintza dela ematen duen, irudia eta itxura dena izango balira bezala.

Euskal abertzaleok ez diogu, sekula ere, gure ikuspuntu edo kontzeptu politiko, sozial eta kulturala inori inposatu nahi izan. Are gutxiago indarrez. Guztiz alderantziz. Geureari eutsi izan diogu Frankismo, nazismo eta komunismoaren aurrean eta askatasuna eta giza eskubideak zapaltzea bilatu duten



adierazpen guztien aurrean. Politika, kultura, ekonomia edo erlijio mailako ustezko nagusikeriaren izenean burutu diren era guztietako ankerkerien biktima izan gara. Eta, gure herriaren izenean, indarkeria asmo totalitarioa inposatzeko erabili zutenen jarduketa bidegabearen aurka agertu izan gara beti.

EAJ-PNVk betidanik bere abertzaletasuna ulertu izan du pertsonen zerbitzura, euskal emakume eta gizonen zerbitzura dagoen adierazpen demokratiko gisa. Bere etorkizuna bere kabuz erabakitzeko aukera izango duen erkidego askearen zerbitzura, hain zuzen. Horregatik, gaur, 2016 urte honetan, gure iragana aldarrikatu nahi dugu izan garena eta izango garena aldarrikatzeko: abertzaleak gara, euskal aberriaren defendatzaileak, gure ahotsa eta konpromisoa berdintasunaren, ideien askatasunaren, eskubide eta aukeren defentsaren mesedetan eskainiko dugu. Horregatik, harrotasun osoz ospatzen dugu Aberri Eguna, gure Euskal Aberriaren egun handia. Iparraldeko eta hegoaldeko euskal herritarrak batzen gaituen aldarri eta sentimendua, mundu osoan zabaltzen dena: izan ere, diasporak, Herri honen zortzigarren herrialdeak, bizirik gordetzen du oraindik "Euskadi euskotarren aberria" printzipioarenugarra.

Aurtengo ospakizuna ahaztu ezin ditugun gertakariekin batera datorkigu. Alde batetik, Espainiar Estatuaren ezegonkortasun politiko eta instituzionala, eta, beste alde batetik, Euskal Autonomi Erkidegoaren legegintzaldiaren amaiera, hauteskunde berrietara eramango gaituena.

Espainiar Estatuak krisi instituzional eta politikoa murgilduta jarraitzen du. Iragan abendutik hona gobernu funtzioko egoeran dago. Eta ez dugu antzematen exekutibo berria osatu ahal delako zantzurik. Parlamentuan ematen den zatiketa, inbestidura ahalbidetuko duten gehiengoak lortzeko ezintasuna eta eragile nagusien jarrera tematiak pentsarazten digute ezegonkortasuna luzerako etorri dela. Gauzak maiatzarren 3a baino lehen aldatu ezik, Gorte Nagusietarako hauteskundeak errepikatuko dira. Eta gobernuaren ezegonkortasuna uda amaitu arte luzatuko da.

Euskal abertzaleontzat Euskadi da lehenetasuna. Ez Espainia ezta bere gobernu ere. Hemen ere, Euskal Autonomi Erkidegoan amaitzear dago legealdia, eta herritargoaren konfiantza berriz eskatzeko prestatzen ari gara, autogobernuari bultzada berria ematen segitzeko.

Amaitzear dugun legegintzaldiak, berezko izan dituen eta kanpotik etorri diren zailtasunekin ere -krisi ekonomikoa eta Legebiltzarrean gutxiengo egoera-, egonkortasun eta ziurtasun giroa utzi digu, Estatu mailan ematen den eszenatokia ez bezala. Arazoek ez dituzte gobernuaren jarduketa ekintzailea edo akordio politikoak eragotzi, azken hauek Euskal Autonomi Erkidegoa abantaila egoerara eraman baitute oinarritzko zerbitzuetan, gizarte ongizatearen babes eta defentsan eta suspertze ekonomikoaren aurrean lortu den egoera positiboan.

Azken urteotan Eusko Legebiltzarrera eraman dugu gaur egun babesa ematen digun autogobernuaren eguneratzeari ekiteko beharra. Autogobernuaren eboluzioa aztertu dugu eta oinarritzko galderak planteatu ditugu eta horien gainetik estatus politikoa berria eraiki ahaliko dugu akordio bikoitzaren oinarrian, hau da, barruko akordio bat Euskadin, hemengo indar politikoen artean, eta beste akordio bat Estatuarekin, elkarrekiko errespetuan eta alde bikotasunean oinarrituta.

Epe legegilea amaituta, Euzko Alderdi Jeltzaleak legebiltzarrean argi eta garbi ezarri nahiko ditu, ahal denik eta adostasun mailarik handienarekin, hurrengo lau urteotan estatus berria eraikitzeko orduan beharko ditugun oinarriak. Euskadi berria, autogobernu berria eta elkarbizitza politikorako sistema berria eraikitzeko konpromiso berria. Bultzada berria, aurrera pausu berria Euskadirentzat, euskal emakume eta gizonen aberri honentzat.

Estatus honi eutsiko dioten oinarriak Legebiltzarraren autogobernu lantaldean aurkeztu ziren eta laburbilduz honakoak ezartzen dituzte:

1. Euskal autogobernua eguneratzeko prozesua egin beharko da legezkotasun-printzipioa errespetatuz, hau da, lege-eremuaren barruan, eta egokituko zaie konstituzio-multzotan ezarritako prozedurei. Edozelan ere, herri-borondatearekiko begiruneak unean-unean aurkitu beharko du bide bat, bai bera aplikatzeko, bai bera ordenamendu juridikoan sartzeko. Printzipio Demokratikoak beharrezko egiten du euskal hiritarren borondateari balio

garrantzitsu eta jatorrikoa ematea; horrek, aldi berean, beharrezko egiten du Estatuak bereganatzea, bai negoziatzeko betebeharra, bai Konstituzioan eta legeetan egin beharreko doikuntzak akordatzeko, euskal hiritarrek adierazitako nahiari erantzuna emate aldera; berba baten, baztertuko da alde bakarrekotasun-printzipioa.

2. Proposatzen duguna da Euskal autogobernua eguneratzeko akordioak Euskal Herriaren nortasuna aitortzea. Aitortza horrek islatuko du euskal gizartean gehiengo batek partekatzen duen nazio sentimendua.

3. Euskal Herria subjektu juridiko eta politikoa da, eskubide eta gaitasuna duena, bere etorkizunari buruz erabakitzeko, itaundua izateko, eta modu demokratikoan adierazitako borondatea errespetatua izan dadin.

4. Egitura berria eman behar zaio Espainiako Estatuaren eta Euskadiren arteko harreman politiko-instituzionalen sistemari. Indarrean dirauen sistemak dakar, Kontzertu Ekonomikoa kenduta, Euskadiko Erkidegoa Estatuaren mende-mendean osorik eta zeharo egotea, eta Estatuaren erabakiek krakateko nabaria ekarri diote gure Estatutuan zehaztuta dagoen autogobernuaren printzipioari. Horregatik, eratu behar da alde biko harremanen sistema bat: sistema horren oinarria izango da alde biek alde zuzenetik elkarri aitortzea badela subjektu politikoa, behar adina gaitasun duela, bai akordioak hartzeko (euskal autogobernua eguneratzeko ituna), eta bai ituna garatu eta aplikatzean sor daitezkeen arazo eta gatazkak ebazteko.

Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, aldaketa ekarri duen aukerak aurrerako pausuak eman ditu eta laster beteko da Uxue Barkosek zuzentzen duen gobernuaren lehen urtea. Nafarroako lehenagoko gobernuek isolatuta bizitzeko hartu zuten estrategia zuzentzeko aldaketa ez da bat ere erraza izan. Baina, apurka-apurka, aurrerako urratsak ematen ari dira iraganarekin apurtzeko eta bizikidetzak hitzarturako oinarriak ezartzeko eta, horien bidez, Nafarroako hiritarrek Erresuma Zaharraren ibilbidea gidatzeari ekingo diote. Urrats horiek zehurtiaz eman behar dira, baina XXI. mendean elkarri bizikidetzaren emanda bizi ezin garelako uste sendoarekin. Aniztasuna berreskuratuz, gehiengoek eta gutxiengoek beren irizpideak adierazteko errespetua, nor bere burua kudeatzeko eskubidea, demokrazia, eta Nafarroako gizarteak hala erabakiko balu, bere talde iragana sortu zuten nortasun ikurrak berreskuratuz. Nafarroak irekialdi berria bizi du, bere tokia bilatzekoa, baina ezeri uko egin gabe. Ez bere forutasunari ezta beste euskal herrialdeekin lankidetzak eta akordioa adosteko aukerari ere. Euzko Alderdi Jeltzaleak uste osoa dauka Geroa Bai taldearen aldetik nafar gizartearen definizio berria ahalbidetzeko egiten ari den lanean. Aldaketa hori errespetatzen eta babesten dugu, gobernuaren kudeaketa sinpletik harago doan jarduketak delako ustean oinarrituta. EAJ-PNVrentzat, Nafarroa izango da nafar emakume eta gizonek beren kabuz eta askatasun osoz erabakiko dutena.

Ipar Euskadiko euskal lurraldeek ere hitzordua dute beren etorkizunarekin esparru administratibo berria eraikiko den garai berrian. Argi dago une honetan planteatzen den "Elkargo Bakarrak" ez

dituela Euzko Alderdi Jeltzalearen asmoak bete betean asetzen. Dena dela, bai uste dugu bere sorrera aukera berria izango dela Lapurdi, Xiberoa eta Baxe Nafarroa lurraldeei izaera administratiboa emateko, kudeaketarako esparru propioekin eta hegoaldeko euskal lurraldeekin lankidetzak lotura berriak ezartzeko paradarekin.

Herri bat eraikitzea egitura politikoa eta instituzionala eraikitzea baino gehiago da. Ezinbesteko gertatzen dira oinarriak, burujabetzaren basamentuak. Baina, boterearen egituraketa eta erabakitzeko esparrua gutxi izan daiteke herritarren ardurek, kezek eta beharrek egituraketa horretan beren tokia aurkitzen ez badute. Naziogintza kausa bat da eta norabide berean bultzatzen duten pizgarriek elikatzen dute. Horiek arazoak ebatzita daude eta ekimen propioa baliagarria eta ona dela erakusten dute. Eta konbentzitu egiten ditu autogobernua nor bere buruari ematen dizkion erantzunek osatzen dutela baieztatzen dutenak. Erantzun eraginkorrak, hurbiltasun printzipioaren balioa aldeztu dutenak.

Erronka horrek behar du borondateek egitasmoarekin bat egitea. Beregan dezatela, bere senti dezatela. Naziogintza da gehiengo politikoa gehiengo sozialetik hurbil jartzea. Aurreikuspeni kale ez egitea. Naziogintza da egitasmo anitz, inklusibo eta zabalak eskaintzea. Eta hori, Euzko Alderdi Jeltzaleak lortu du politikagintzan eta erakundegintzan egiten duen ibilbide luzean.

Nazioa egunez egun eraikitzea. Norbanakoaren ekimenetik hasita eta partekatutako konpromisoraino. Esparru horretan aurrerapauso handia eman dugu,

baina ezinbesteko dugu aitortzea, are gehiago, Euskal Aberria aldarrikatzen dugun egun honetan, asko direla oraindik egiteko ditugun gauzak.

Euskara berreskuratzeko lanean bide garrantzitsua egin dugun arren, asko dugu egiteko. Euskararen normalizazioak erabiltzea behar du, euskararen erabilera naturalerako esparruak eraikitzea. Eta, gure hizkuntza hegoaldean berreskuratzen den bitartean, lehenagoko denboretan euskara jori zerion herrialdeetan, Etxepare, Leizarraga, D'Abbadie edo Xalbadorren lurraldean, euskara makalduta dago babesik ez duelako. Euskarak ez du babestuko duen legerik ezta gobernurik ere. Koldo Mitxelena esan zuen "Egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria". Beraz, ez da Euskal Herririk izango euskararik egon ezik. Eta hor dugu, hain zuzen, 2016 urtean daukagun erronkarik nagusienetakoa: euskara eguneroko eta gure ohiko bizimoduko hizkuntza izan dadila. Eskola orduetan elikatu dadila, baina baita jolastorduetan ere. Etxeko esparruan eta aisian. Kirolean, merkataritzan. Lanean, administrazioan, eguneroko bizimoduan.

Herri txikia gara. Eta globalizazioak horixe erakusten digu egunotan. Era guztietako aldaketa historikoak gainditu ditugu eta bizirik iraun dugu. Iraultzak eta gudak bizi ditugu. Inperio kolonialen gainbeherak eta estatu berrien sorrerak ikusi ditugu. Loraldiak eta krisiak. Egunsentiak eta ilunabarrak. Gertakari ezberdinen erritmora moldatu gaituen kosmogoniatik bizirik ateratzea lortu dugu. Eta orain geratzen zaigu esparru globalaren haizete gogorrari aurre egitea.

Fenomeno horren ondorioz gogorrenak egunotan sentitzen ari gara. Petrolioaren inguruan sortu den borroka geostrategikoa, ondorio anitzak dituen "guda hotz" bihurtuta, Asiako erraldioen bultzada ekonomikoa, beren produktuak inposatzen dituztela Europa babesgabe eta nortasunik gabean lehia egingo dieten aurkaririk gabe eta enpresaren egiteko tradizionala beren baliabideen errentagarritasuna soilik bilatzen duten inbertsio funtsek ordezkatuta. Horrek denak herri gisa dagokigun tokia eman digu eta onik aterako gara, bizirik iraungo dugu, unean uneko egoeran buru argiz, gure gaitasunarekin eta gure produkzio sarea berritzearen bidez moldatzen asmatzen badugu. Hau da, gure giza kapitala eta enpresa kapitala ondo baliatuta.

Gaur Txinan produzitzen den altzairu soberakina edo inbertsio petrokimikoen gainbehera dira gure enpresak mehatxatzen dituztenak. Bihar espekulazio funtsak izan daitezke, behar den tamaina faltan nazioarteko lehiakide nagusiek gure lantegirik garrantzitsuenak bereganatzea eta merkatutik desagerraraztea gerta daitekeelako. Duela gutxi astindu gintuen krisitik irteten ginela uste genuenean, berriro ere adi jarri gaituen mundu mailako errealitateak iratzarri gaitu.

Jakin badakigu etorkizun politikorik ez dagoela etorkizun ekonomikorik ez badago. Industria esparruan daukagun tradizioak – bereziki produkzio alorrean– eszenatokirik okerrenetan ere garatzeko gaitasuna eman digunak, "bere burua berrasmatzeari" ekin beharko dio, balio erantsi handiagoko jardueren aldeko apustua egin beharko du. Ezagutzaren transferentzia handitzen

jakin beharko du. Prestakuntza egokitu beharko du aldaketetara ondo moldatuko den hezkuntza sistemara -bereziki LH eta Unibertsitatea-. Produkzio mundutik eta enpresen beharrianetatik hurbil. Nazioartekotze kultura sustatu behar dugu bultzada publiko eta instituzional guztien baturaren bidez. Egitasmoei tamaina eta kaudimena emango dieten enpresen arteko aliantzak eta lankidetzak formulak bilatuaz, onenen artean lehiatu ahal izateko. Finantzaketa dibertsifikatuaz, bankuen maileguen gelditze eta haiekiko egon den mendekotasun neurrigabearen ondoren. Oinarrizko industrien funtsen sustraitzearen aldeko apustua eginaz.

Azken finean, planteatzen zaigun erronka ekonomikoak eskatzen digu gure masa kritikoa gizarte eta Aberri gisa finkatzea, korrante horrek eraman ez gaitzan. Gizartea arrakastatsua izan dadin eta gure Herria osatzen duten pertsonak beren beharrianak aseta izan ditzaten. Bizitza kalitateak elkarrekin segitzen lagunduko digun lurraldea osatzea dugu helburu. Lurraldea, ezagutzen dugun kontzeptu geografikotik harago. Aukera lurraldea. Hazteko lurraldea. Prestatzeko lurraldea, nahiak garatzeko eta ametsak errealitate bihurtzeko herrialdea.

Gure nortasunari eta gure borondateari beste ezaugarri bat gehitu behar diegu: Euskadi ongizate, aurrerapen, lehiakortasun, bake eta bizikidetzak lurralde egitea. Horretarako, herri hau urteotan egituratu izan duen antolaketa instituzionala berrantolatu eta finkatu beharko dugu. Gizarte beharrian berriek, herritargoaren eskari berriek erantzun arin eta eraginkorrek eskatzen dituzte. Bikoizketarik gabe. Berehalakotasuna

behar da. Burokrazia gutxiago. Arintasun handiagoa. Lankidetzak handiagoa. Subsidiariorotasun handiagoa.

Erronka berriak sortu dira, belaunaldien erreleboa, besteak beste. "Herri zaharra" garela esaten dugunean bere antzinasuna gogoan esaten dugu. Baina aspaldiko partez egia da herri hau zahartu egin dela. Eta behar duen ordezkatzeko tasa falta zaio. Gure gizartearen eboluzio demokratikoak argi utzi digu bizitzeko itxaropen handiagoa dugula. Luzaroago bizi gara eta hori, printzipioz, gauza ona den neurri berean, baditu kezka eragiten diguten arlo batzuk. Alde batetik, bizitza-luzerak berarekin dakartzan arazo berriak. Zahartze aktibotik hasita eta osasun arazo berrietaraino, zeinei gizarte garatua garen neurrian, aurre egin beharko diegun.

Beharrian berriak eta, halaber, beharrez, baliabide ekonomiko berriak beharko dira denon ongizateari eusteko. Eta hori dena epe laburrean euskal herritar berriak beharko dituen piramide demografikoarekin, mapa globalera sartzen direnetik aberastasuna, enplegua eta balio erantsia eskainiko dutenak, denon artean sistemari eutsi ahal izateko.

Euskal herritar berriak, jaiotza sustatzeko neurrien bidez, lan arloko politika berrien bidez, familia eta lana uztartzeko neurrien bidez etorriko direnak eta jaioterritik urrun migrazio prozesu baten bidez gure artera hurbilduko direnak beren etorkizuna gurekin partekatuz eta gure erkidegoan gero eta gehiago integratuz. Iraganean gertatu bezala, milaka emakume eta gizon Euskadira lan bila etorri zirenean eta beren bizimodua eta familia berena egin zuten herri batean lotzea erabaki zutenean bezala.

Oraingoak moduko denboretan, zeinetan xenofobiaren sukarrak beren burua garatuzat jotzen duten herrialdeak jo dituen, argi izan behar dugu Euskadik ez eze Europa osoak ere bere atea ireki beharko dituztela. Ez bakarrik gizaki guztiek merezi duten duintasunagatik edo giza eskubideekiko daukagun konpromisoagatik, baizik eta baita biztanleria gaztetzeko dugun beharrianagatik ere. Desberdinari beldurra izatea gizakiaren berezko ezaugarria da. Euskadin ere antzeman dugu errezelo hori. Gure haragi eta odoletan sentitu genuen urteotan aukera berrien bila etxetik irten behar izan genuenean. Mesfidantza hori erakusten dugu orain, beren etxean aurkitu ez dutelako, gugana etorkizun bila hurbiltzen ari direnen aurrean. Euskadi babeslekua izan da beti, eta gure artean duintasun gunea eraiki nahi izan dutenak integratzen jakin izan du. Begirunea, duintasuna, eskubide eta derrigor berdinak. Ezinbesteko eragiketa dugu hori.

Gerraren ankerkeriatik ihesi doazen milaka biktimei abegia emateari uko egiten dion Europa ez da Euzko Alderdi Jeltzaleak nahi duena. Europari buruz daukagun ikuspuntuak arima dauka, oinarri humanitarioak ditu eta printzipio horiek dira Batasunaren abiapuntuak zeinetan babes eskubideak bere funts demokratikoaren berezko parte diren. Estatuaren berekoikeriatik behingoz aldentzeko den Europa, bere nortasun propioa izango duena, denon politikak zehaztera begira. Ez soilik ekonomia edo segurtasun alorrean -horiek ere bai- baizik eta baita mundu mailako erronkei begira ere, bakoitzak bere aldetik egiten badugu txiki egingo gaituztelako eta herritarrek politikatik eta Europa kontzeptutik urruntzea ekarriko duelako.

Ongizate, kohesio, aurrera egiteko erronka horien guztien atzetik, iraunkortasunaren erronka dago. Iraunkortasuna termino lausoa da, baina gizarte baten bizimodua orain aldi eta hurrengo belaunaldietan bermatzeko ahalmenean zehazten da. Iraunkortasuna gizarte zerbitzuei eustea ahalbidetuko duten baliabide ekonomikoez hornitzeko. Osasuna, hezkuntza, gizarte prestazioak. Iraunkortasuna, naturgunea atzetik etorriko diren belaunaldientzat gordetzeko. Behar den aurreikuspenez bermatu behar dugu ibiltzen ari garen bidean gu bazterrean utziko gaituen eragozpen gaindiezinik aurkituko ez dugula. Iraunkortasuna, gero eta exijenteagoak diren gizarte eskariei arduraz erantzuteko. Esaerak "ezina ekinez egina" gogoratzen digun arren, batzuetan hori lortzeko aukerarik ez dagoelako.

Euskal nazionalistak gara. Abertzaleak. Euskal aberrian sinesten dugu eta aberri hori haztea nahi dugu nazioartean erabateko aitortza lortu arte. Esparru globalak edo inguru politiko hurbilak ez digute helburu hori erraz jarriko. Baina guk uste osoa daukagu gure helburuan, gure buruarengan. Konfiantza osoa daukagu herri honetako emakume eta gizonengan, Euskadi izeneko egitasmo hau bultzatzen jarrai dezagun. Bizitzeko bultzadak. Konpromiso bultzadak. Askatasun eta erabakimen bultzadak.

2016ko Euskadi. Gure bideak aurrera darrai.

Gora Euskadi askatuta!

Euzkadi Buru Batzarra.

2016ko martxoaren 27a.